



ENPRESA EKIMEN BERRIEN XIII. SARIKETA

SARIKETAREN OINARRIAK

Goiekik, Goierriko Garapen Agentziak, “ENPRESA EKIMEN BERRIEN XIII. SARIKETA” martxan jarri nahi du.

Aurkez daitezkeen lanen formatua bateratzeko, “galdera-sorta estandarizatu bat eskainiko dugu. Hori esandako epean ekarri beharko da GOIEKIk bulegoetara.

Sari honek bultzatu eta indartu nahi dituen baloreak sustatzailearen irudia eta eskualdean enplegua eta aberastasuna sortzea dira.

Azken finean, Goiekik, enpresa mailan Goierri bertan egi bihur daitezkeen ‘asmo’ guztien alde jarri eta bultzatu nahi ditu. Goierriko ekonomia berpizteko eta eguneratzeko kultura indartzea dakarten proiektu guztien alde egin nahi du.

I. HELBURUAK

- Sustatzailearen irudia piztu
- Eskualdean lana eta aberastasuna sortu
- Urteko proiekturik onena saritu

II. NORI ZUZENDUA

2009 urtean zehar, negozio ideia bati buruz bideragarritasun plana landu duten sustatzaileei (banaka edo taldean).

III. SARIA

- Saria: inkubategiko zerbitzu guztiak + 9.000 € proiektua martxan jartzerako momentuan.
- Enpresen kudeaketan formazioa ideia interesgarrientzako
- Enpresa martxan jarri arte eta ondorengo urteetan aholkularitza eta laguntza.

Epai-mahaiak, aurkeztutako egitasmoen maila txikiegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean geratu daitezke.

IV. AGIRIAK ETA BESTELAKOAK

- Goiekin jasotako galdera-sorta derrigorrez bete behar da eta deialdi honetan adierazitako epeetan ekarri. Helbidea: Maiutz Industrialdea 18^o pabilioia, 20.240 Ordizia –Gipuzkoa, edo Web orrian.

Informazio gehiago:

- Telefono zenbakia: 943 16 18 31
 - www.goierri.org
 - inkubategia.goieki@goierri.org
- Lehiaketaren epai-mahaiak, hala baderitzo, aurkeztu direnekin elkarrizketak izango ditu.

V. LANA AURKEZTEKO EPEA

Epai-mahaiak agiri guztiak aurkezteko finkatu duen epea : **2010ko otsailaren 26a**

VI. KONTUTAN HARTUKO DIREN ERIZPIDEAK

- Proiektu berritzailea izatea
- Proiektu sendoa izatea
- Proiektu bideragarria izatea
- Sustatzailearen konpromisoa proiektuarekiko

VII. EPAI MAHAIKIDEAK

- GOIEKI-ko bi ordezkari (Goierriko Garapen Agentzia).
- LORTEK-eko ordezkari bat (Ingeniaritza teknologiko zerbitzua).
- Banakako ordezkari bat.
- Goierriko enpresetako 3 ordezkari.
- GOIHERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA-ko ordezkari bat.